Telefonoak Bluetooth haririk gabeko konexioak onartzen ditu. Bluetooth-a duten automobileko kitei edo entzungailuei konekta diezaiekezu telefonoa, deiak esku  libreko funtzioa erabiliz egiteko.

Bluetooth konexioak onartzen dituzten telefonoekin edo ordenagailuekin ere konekta zaitezke, fitxategiak trukatzeko.

Oharra: gidatzean haririk gabeko telefonoa erabiltzeak arreta galtzea eragin dezake. Amaitu deia, gidatzen kontzentratzeko arazoak eragiten badizkizu. Gainera, haririk gabeko mugikorrek eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta dago toki batzuetan. Egin kasu beti horrelako produktuen erabilera arautzen duten lege eta arauak.

Bluetooth segurtasuna zaintzeko, konektatu beti Bluetooth gailuak ingurune seguru eta pribatuetan.

Bluetooth-a aktibatzea edo desaktibatzea

Bilatzeke:  >  **Conexiones > Bluetooth > Configurar > Estado > Activado**


Oharra: bateriak luzaroago iraun dezan, segi jarraibide honi Bluetooth elikadura erabiltzen ari ez zarenean **Desactivado** gisa konfiguratzeko. Bluetooth elikadura **Activado** gisa berrezarri eta telefonoa beste gailu batekin berriz konektatu bitartean, telefonoa ez da konektatutako beste gailu batzuekin.

Entzungailuak edo autorako kitak erabiltzea

Telefonoa esku libreko gailu batera konektatzen saiatu baino lehen, egiaztatu gailua aktibatuta eta prest dagoela, *sincronización* edo enlace moduan (ikus gailu honen erabiltzailearen eskuliburua). Telefonoa une berean ezin da gailu batekin baino gehiagorekin sinkronizatu.

Bilatzeke:  >  **Conexiones > Bluetooth > Dispositivos Audio > [Buscar Dispositivos]**

Telefonoak dagokion tartean aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko du

- 1 Joan zerrendan aukeratutako gailura eta sakatu  erdiko tekla.
- 2 Sakatu **Sí** edo **Acceptar** gailuarekin konektatzeko.
- 3 Behar izanez gero, sartu gailuaren pasahitza (adibidez, **0000**) eta sakatu **Acceptar** tekla.

Behin telefonoa konektatutakoan,  Bluetooth adierazlea agertzen da pantaila nagusian, eta Bluetooth-aren argiak keinu egiten du.

Zuzeneko sarbidea: Bluetooth-a aktibatuta dagoenean, telefonoa automatikoki konektatzen da lehendik erabilitako esku libreko gailuekin. Aski da gailua piztea eta telefonora hurbiltzea.

Fitxategiak beste gailuetan kopiatzea

Multimedia-mezuak, telefono-aurkibideko sarrerak eta agendako elementuak kopia ditzakezu, edo markagailuak sortu Bluetooth konexioak onartzen dituzten beste telefono edo ordenagailu batzuetara konektatzeko.

Oharra: copyright-ekin babestutako objektu batzuk ezin dira kopiatu.

Fitxategi bat beste gailu batera kopiatzen saiatu aurretik, ziurtatu gailu hartzailea piztuta eta ikusteko moduan prest dagoela. Halaber, egiaztatu gailua beste bluetooth konexio batean ez dagoela.


- 1 Telefonoan, joan beste gailuan kopiatu nahi duzun objektura.

2 Sakatu **Opciones** eta aukeratu:

- **Gestionar > Copiar** multimedia-fitxategietarako.
- **Enviar Contacto > Bluetooth** telefono-aurkibideko sarrerretarako.
- **Enviar** agendako elementuetarako edo markagailuetarako.

3 Hautatu detektatutako gailu-izen bat edo **[Buscar Dispositivos]** fitxategia zein gailutan kopiatu nahi duzun bilatzeko.



Oharra: telefonoa Bluetooth gailu batera konektatutakoan, hark antzeko beste Bluetooth konexio bat has dezake telefonoarekin. Bluetooth konexio bat ezarritakoan

 Bluetooth adierazlea agertzen da pantailan.

Fitxategiak beste gailu batetik jasotzea

Beste gailu batetik fitxategiak jasotzen saiatu baino lehen, egiaztatu telefonoaren Bluetooth konexioa aktibatuta dagoela (ikus 45. orrialdea).

1 Ipini telefonoa gailutik gertu eta bidali fitxategia gailutik.

Telefonoak eta bidaltzeko gailuak elkar detektatzen ez badute, aktibatu telefonoaren modu ikusgaia, bidaltzeko lokalizatu ahal izan dezan. Sakatu  > 

Conexiones > Bluetooth > Visibilidad.

2 Sakatu telefonoaren **Aceptar** tekla, beste gailuaren fitxategia onartzeko.

Telefonoak jakinarazten du fitxategi-transferentzia amaitzen denean. Dagokionean, sakatu **Guardar** tekla fitxategia gordetzeko.

Fitxategiak inprimagailura bidaltzea

Multimedia-fitxategiak, telefono-aurkibideko sarrerek eta agendako elementuak Bluetooth konexioa onartzen duten inprimagailuetara bidal ditzakezu telefonotik.





Oharra: A4 tamainako edo gutun-tamainako orriak inprima daitezke. Beste tamaina batzuk inprimatzeko, kopia objektua konektatutako inprimagailu batera eta inprimatu han.







- 1 Telefonoan, joan inprimatu nahi duzun objektura eta sakatu **Opciones > Imprimir.**

Iradokizuna: ikusten baduzu, inprima dezakezu. Kamerarekin argazki bat atera ondoren, **Guardar** tekla sakatu eta **Imprimir y guardar** hauta dezakezu.

- 2 Hautatu beste objektu edo inprimatzeko aukera batzuk, baldin erabilgarri badaude, eta hautatu **Imprimir** jarraitzeko.
- 3 Hautatu detektatutako inprimagailu-izen bat, edo hautatu **[Buscar Dispositivos]**, fitxategia bidaltzeko inprimagailua bilatzeko.

Bluetooth funtzio aurreratuak


Funtzioak		
Detektatutako gailu batera konektatzea	 >  Conexiones > Bluetooth > Dispositivos Audio > gailuaren izena	
Gailuarekiko konexioa etetea	Joan gailuaren izenera eta sakatu Desconnect. Tekla.	
Hizketan ari zarela entzungailura edo autoko kitera aldatzea	Sakatu Opciones > Usar Bluetooth.	

Funtzioak	
Hizketan ari zarela telefonora itzultzea	Hizketan ari zarela entzungailuen modutik autoko kitaren modura aldatu eta berriz telefonoa : Sakatu Opciones > Usar Teléfono. 
Multimedia-fitxategiak gailura mugitzea	Kontuz: Fitxategi bat mugitzean, telefonoko fitxategi originala ezabatu egiten da. Jatorrizko fitxategia gordetzeko, erabili Copiar funtzioa (46. orrian deskribatuta dago). Joan fitxategiraino eta sakatu pulse Opciones > Gestionar > Mover; hautatu gailuaren izena. 
Detektatutako gailuaren ezaugarriak editatzea	Joan gailuaren izenera eta sakatu Opciones > Modificar. 
Joan gailuaren izenera eta sakatu	 >  Conexiones > Bluetooth > Configurar 

Testu-mezuak

Mezuen funtzio gehiago kontsultatzeko, ikus 94. orrialdea.

Testu-meza bidaltzea



Testu-mezu batek testua eta irudiak, soinuak eta multimedia-objektuak izan ditzake. Orri bat baino gehiago erants diezazkiekezu mezuei, eta testua eta multimedia-objektuak jar ditzakezu horietan. Mezuak bidal ditzakezu beste telefono bateragarrietara edo helbide elektronikoetara. 

Bilatzeko:  >  **Mensajes > Nuevo > Mensaje**

- 1 Erabili teklatuko teklak orrian testua idazteko (testua sartzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus 60. orrialdea).

Orrian irudi, **soinu edo bestelako multimedia-objekturen bat** sartzeko, sakatu **Opciones > Insertar**. Hautatu fitxategi-mota eta fitxategia.

Mezuan beste orri bat sartzeko, sartu testu edo objektua uneko orrian eta sakatu **Opciones > Insertar > Intro página nueva**. Testu gehiago eta objektuak sar ditzakezu orri horretan.

- 2 Mezua bukatutakoan, sakatu **Opciones > Opciones Envío**, mezuaren aukerak zehazteko (adibidez, **Asunto** eta **Prioridad**).
- 3 Mezuaren aukerak definitzean, sakatu **Aceptar**.
- 4 Sakatu **Enviar** a mezuaren hartzaileak hautatzeko. Aukera hauek dituzu:
 - Telefono-aurkibideko sarrera bat edo gehiago hautatzea (sakatu  sarrera batera joateko; eta sakatu  erdiko tekla hautatzeko).
 - Beste zenbaki edo helbide elektronikoa bat sartzeko (sakatu **Opciones > Introducir Número edo Introducir Correo**).
- 5 Sakatu **Enviar** tekla, mezua bidaltzeko.


Hainbat orri edo multimedia-objektu baditu, MMS mezua dela esango dizu telefonoak. Sare batzuek eta telefono batzuek ez dituzte onartzen irudiak dituzten mezuak. Sakatu **Sí** tekla, mezua bidaltzeko.

Mezua gordetzeko edo ezeztatzeko, sakatu **Opciones > Guardar Borrador**
Cancelar Mensaje


Testu-mezuak jasotzea

Telefonoak mezu bat jasotzen duenean, alerta-soinu bat egiten du, eta **Nuevo** eta mezu-adierazle bat (✉ adibidez) agertzen dira pantailan.

Sakatu **Leer** tekla mezua irekitzeko. Mezuak multimedia-objektuak baditu:

- Irudiak eta animazioak agertzen dira mezua irakurtzean. 
- Audio-fitxategiak erreproduzitzen dira mezua irakurtzean. Erabili bolumen-tekla soinuaren bolumena doitzeko.
- Fitxategi erantsiak mezuaren amaieran atxikitzen dira. Erantsitako fitxategi bat irekitzeko, joan fitxategiaren adierazlera/izenera, eta sakatu **Ver** (irudia), **Reproducir** (soinua) edo **Abrir** (telefono-aurkibideko vCard-a, agendako vCalendar-sarrera edo fitxategi-mota ezezaguna).

Memoria-txartela

Multimedia-objektuak (argazkiak eta abestiak, adibidez) gordetzeko eta berreskuratzeko, telefonoko memoria-txartel aldagarria erabil dezakezu. 

Telefonoak 1 GBra arteko memoriak onartzen ditu.


Memoria-txartela ezartzea

Kontuz: ez tolestu eta ez urratu memoria-txartela. Ez eduki elektrizitate estatikotik, uretatik eta hautsetatik gertu. Itzali telefonoa memoria-txartela sartu edo atera aurretik.


- 1 Sakatu bateriaren estalkiaren itxigailua



- 2 Altxatu eta kendu bateriaren estalkia




- 3 Metalezko kontaktuak beherantz begira daudela, lerratu memoria-txartela banda metalikoaren azpian, grafikoan adierazten den bezala



Memoria-txartela kentzeko:

Bultzatu tapa beherantz eta lerratu memoria-txartela zirrikitutik kanpora



Memoria-txartelaren informazioa bistaratzea eta aldatzea

Telefonoaren memoria-txartelean gordetako fitxategiak ikusteko, ireki fitxategi-zerrenda bat; adibidez, **Imágenes** (ikus 110. orrialdea). Ikonoek adierazten dute fitxategi bat telefonoaren memorian dagoen (📁) edo memoria-txartelean dagoen (📁) Telefonotik memoria-txartelera fitxategi bat kopiatzeko edo mugitzeko, nabarmendu zerrendan eta sakatu **Opciones > Gestionar > Copiar** edo **Mover > Tarjeta Memoria**. Copyright-ek babestutako fitxategi batzuk ezin dira kopiatu edo bidali.

Memoria-txarteleko fitxategiak ordenagailuan kopiatzeko, kable bidezko konexio bat erabil dezakezu (ikus 54. orrialdea) edo Bluetooth konexioa (ikus 44. orrialdea).

Memoria-txartelaren izena, erabilgarri dagoen memoria eta txartelari buruzko beste hainbat datu ikusteko:

Bilatzeko: 📶 > ⚙️ **Configuración > Estado Teléfono > Detalles Almacenam.**

- 1 Sakatu 📶 memoria-txartelera joateko.
- 2 Sakatu erdiko tekla 📶 memoria-txarteleko informazioa ikusteko. Eransten dituzun edukiak (adibidez, doinuak edo jokoak) erabiltzailearen memorian gordetzen ditu telefonoak. Batzuetan, aurretiaz zerbitzu-hornitzaileak gordetako zenbait eduki izaten ditu telefonoaren erabiltzailearen memoriak.

edo


Sakatu **Opciones** memoria-txartelarekin eragiketa hauek egiteko: **Formatear** edo **Renombrar**.

Kable bidezko konexioak



Telefonoak USB miniataka bat dauka ordenagailura konektatzeko eta datuak transferitzeko.

Oharra: Datuak transferitzeko Motorola Original kableak eta softwarea bereiz saltzen dira. Egiatzatu ordenagailua edo gailu eramangarria zer kable-mota behar duzun zehazteko. Telefonoaren eta ordenagailuaren artean **datuak transferitzeko**, Motorola Originalen datu-kitean dagoen softwarea instalatu behar da. Informazio gehiago izateko, kontsultatu datu-kitaren erabiltzailearen eskuliburua. Konektatutako ordenagailuaren bidez **datu-deiak egiteko**, ikus 103. orrialdea.



Memoria-txartela ordenagailura konektatzea

Kable bidezko konexio bat erabil dezakezu, ordenagailu pertsonal batetik telefonoko memoria-txartelera sartzeko.

Oharra: telefonoa ordenagailura konektatuta dagoenean, memoria-txartela ordenagailu bidez bakarrik erabil daiteke.

Telefonoan:

Sakatu  >  **Conexiones > Configurar USB**

> **Conex. Predeterminada > Tarjeta Memoria.**

Ekintza horrek USB konexioa memoria-txartelerantz bideratzen du. Konektatu Motorolaren jatorrizko USB kablea telefonoaren osagarrien atakara eta ordenagailuaren USB ataka batera.



Ondoren, jarraitu urrats hauei:

Ordenagailuan:

- 1** Ireki "Nire PCa" leihoa. Telefonoaren memoria-txartela "Disko aldagarria" i kono gisa ageri da.
- 2** Egin klik "Disko aldagarria" ikonoan, telefonoaren memoria-txartelean gordeta dauden fitxategietara sartzeko.
- 3** Fitxategiak memoria-txartelean gordetzeko, arrastatu eta askatu honela: **MP3 o AAC** : > móvil > audio **salvapantallas**: > móvil > imagen **papel tapiz**: > móvil > imagen **videoclips**: > mugikorra > bideoa
- 4** Amaitzean, gailua kentzeko, hautatu sistemaren barran (ordenagailuko pantailaren beheko aldean) azaltzen den "Hardwarea segurtasunez erauztea" ikonoa. Gero, hautatu "USB biltegitatze masiboko gailuak" eta hautatu "Gelditu".
- 5** Hautatu "USB biltegitatze masiboko gailua" eta sakatu "Ados".

Telefonoan:

Datos lehenespenezko USB konexio gisa berriz ezartzeko, sakatu  > 
Conexiones > Configurar USB > Conex. Predeterminada > Conexión Datos.

Telefono Eguneratzeak

Batzuetan telefonoko softwarea arintzeko edo indartzeko moduak bururatzen zaizkigu erabiltzaileak erosi eta gerora. Telefonoa eguneratu duten jakiteko eta eguneratzeen berri doan izateko, eman izena web gune honetan:

www.hellomoto.com/support/update


Oharra: softwarearen eguneratzeek ez diete eragiten telefono-aurkibideko sarrerei eta beste sarrera edo fitxategi pertsonalei. Softwarearen eguneratze bat jasotzeko eta beste une batean instalatzeko, ikus 105. orrialdea.

Oinarrizko kontzeptuak

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

Pantaila

Telefonoa piztean azaltzen da *pantaila nagusia*.



Oharra: operadorearen arabera, pantaila nagusiaren itxura aldatu egiten da batzuetan.




Pantaila nagusitik zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki-teklak eta, ondoren,



Sakatu erdiko tekla menu nagusia irekitzeko. Funtzio-teklen etiketek teklen uneko funtzioak adierazten dituzte. Funtzio-teklen kokapena ikusteko, ikus 1. orrialdea.

Pantaila nagusian, sakatu nabigazio-tekla gora, behera, ezkerreko edo eskuineko, oinarrizko funtzioak irekitzeko. Pantaila nagusian, funtzio horien ikonoak bistaratu edo ezkuta ditzakezu, eta daudenak aldatu (pantaila nagusiko ikonoak nola aldatu jakiteko, ikus 99. orrialdea).





Pantaila nagusiko goiko aldean egoera-adierazle hauek bistara daitezke:




Ordenagailuan:





1 Estalduraren adierazlea: Barra bertikalek sarearen konexio-maila adierazten dute. Ez duzu deirik egiterik edo jasotzerik izango  adierazlea edo  azaltzen bada.

2 GPRSaren adierazlea Telefonoak GPRS (General Packet Radio Service) sare-konexioa erabiltzen duenean bistaratzen da. Aukera hauek daude:

-  GPRS konexioak
-  GPRS datuak erabilgarri
-  GPRS datuen zerbitzua
-  GPRS PDP ingurune aktiboa



Datuen adierazlea: Konexioaren egoera erakusten du. Telefonoa beste gailu batekin konektatuta dagoenean bistaratzen da Bluetooth™-aren adierazlea  Beste adierazle hauek ere badaude:



-  Datu-transferentzia segurua
-  Datu-transferentzia ez-segurua
-  Konexio segurua
-  Konexio ez-segurua

 CSD (Circuit Switch Data) dei segurua

 CSD dei ez-segurua

4 Desplazamendu-adierazlea: telefonoa erabiltzailearen sarea ez den beste bat erabiltzen edo bilatzen ari denean agertzen da desplazamendu-adierazlea ▲



5 Linea aktiboaren adierazlea:  bistaratzen du dei aktibo bat adierazteko, edo  deiak desbideratzeko funtzioa aktibatu dela adierazteko. Bi linea dituzten SIM txartelen adierazleak hauek dira:



1 1 linea aktibatuta  deiak desbideratzea aktibo 2 linean

2 2 linea aktibatuta  deiak desbideratzea aktibo 2 linean

Java™ adierazleak  adierazten du Java aplikazio bat aktibatuta dagoela.



6 Mezuen adierazlea: Mezu berri bat jaso denean bistaratzen da. Adierazleak hauek izan daitezke:

 testu-mezua









 ahots-mezua

 ahots- eta testu-mezua

7 Kokapen-adierazlea: Telefonoak informazioa bidal dezakeen  edo ez  adierazten du.

8 Txirrin-motaren adierazlea: txirrin-motaren konfigurazioa bistaratzen du.

-  txirrin altua
-  bibrazioa
-  bibrazioa eta, ondoren, txirrina
-  txirrin baxua
-  bibrazioa eta txirrina
-  isilik

9 Bateriaren mailaren adierazlea: Barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Telefonoan **Batería Baja** azaltzen denean, kargatu berriro bateria.

Testua idaztea

Funtzio batzuen bidez testua idatz daiteke.







Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean, idazteko modu bat hautatzeko

idazteko metodoak	
o 1	Principal Idazteko modua definitzeko aukera hauek daude: edozein iTAP™ (modu o 1) edo (tap modua 1)
o 2	lIdazteko modua definitzeko aukera hauek daude: Ninguno , (iTAP modu o 2) edo (tap modua 2)
123	Numérico ; Modu honen bidez zenbakiak bakarrik idatz ditzakezu.
@	Símbolo ; Modu honen bidez ikurrak bakarrik idatz ditzakezu




Idazteko modu nagusia eta sekundarioa ezartzeko, sakatu **Opciones > Configurar Texto** testua idazteko pantaila batean, eta hautatu **Config. Principal** o **Config. Secundaria**.

iTAP™ eta Tap moduei buruzko aholkuak

- Testua idazteko pantailan, sakatu **o** dena minuskulaz idazteko (**abc**) hurrengo letra soilik maiuskulaz idazteko (**ABC** hauekin: **o 1** edo **o 2**), edo dena maiuskulaz idazteko (**ABC** hauekin: **o 1** edo **o 2**).
- Zenbakiak azkar idazteko, luze sakatu zenbaki-tekla bat une batez zenbakizko modura aldatzeko. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko. Sartu espazio bat iTAP modura itzultzeko.
- Sakatu **o** puntuazio-ikurrak eta bestelako karaktereak sartzeko


- Sakatu  kurtsore keinukaria mugitzeko, mezuaren testua idatzi edo editatzeko.
- Sakatu  kurtsorearen ezkerrean dagoen karakterea ezabatzeko. Luze sakatu  hitz osoa ezabatzeko.
- Mezua bertan behera uzteko, sakatu 

iTAP™ modua

Sakatu  testua idazteko pantaila batean, iTAP modura aldatzeko.  edo  azaltzen ez badira, sakatu **Opciones > Configurar Texto**, iTAP modua modu nagusi edo bigarren mailako modu gisa zehazteko.

iTAP moduaren bidez, letra bakoitzari dagokion tekla behin bakarrik sakatuta idatz daitezke hitzak. *iTAP* softwareak teklen pultsazioak konbinatzen ditu hitz arruntak sortzeko, eta idazten duzun neurrian aurreratu ditu hitzak.

Adibidez,     sakatzen baduzu, telefonoak hau bistaratuko du:



Beste hitz bat idatzi nahi baduzu (adibidez, **Progreso**), segitu teklatuko teklak sakatzen gainerako karaktereak idazteko.


Iradokizuna: ez kezkatu iTAP nola erabiltzen den ahazten bazaizu. Azalpenak behar izanez gero, testua idazteko pantaila batean, sakatu **Opciones > Configurar Texto > Tutorial Texto**.

Tap eta tap zabaldua moduak

Sakatu [⌘] testua idazteko pantaila batean, tap modura aldatzeko **1** edo **2** azaltzen ez badira, sakatu **Opciones > Configurar Texto**, tap modua modu nagusi edo bigarren mailako modu gisa ezartzeko.

Testua **Tap** moduan idazteko, sakatu teklatuko tekla bat behin eta berriro, nahi duzun letra edo zenbakia azaldu arte. Egin gauza bera letra bakoitza idazteko. **Tap Ampliado** modua berdin dabil, baina karaktere eta ikur berezi gehiago ditu.

Adibidez, [7] behin sakatzen baduzu, telefonoak hau bistaratuko du:



Esaldi bakoitzeko lehen karakterea beti bistaratuko da maiuskulaz. Beharrezkoa bada, sakatu [↵] behera karakterea minuskulaz jartzeko, kurtsorea hurrengo posizioa mugitu aurretik.

Zenbakizko modua

Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean **123** ikusi arte. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko.

Zuzeneko sarbidea: aldi baterako iTAP edo Tap moduetatik zenbakizko modura aldatzeko, luze sakatu zenbaki-tekla bat. Sakatu zenbaki-teklak, zenbakiak idazteko. Sartu espazio bat iTAP modura itzultzeko.


Ikurren modua

Sakatu **#** testua idazteko pantaila batean **@** ikusi arte. Sakatu teklatuko tekla bat haren ikurrak pantailaren beheko aldean ikusteko. Zoaz nahi duzun ikurrera, eta, ondoren, sakatu **••** erdiko tekla.

Bolumena

Sakatu bolumen-teklak honetarako:

- Sarrerako deien alerta desaktibatzeko
- Hitz egiten ari zarenean entzungailuaren bolumena aldatzeko
- Pantaila nagusitik txirrinaren bolumena aldatzeko




Iradokizuna: batzuetan, isiltasuna urrea bezalakoa da.

Horregatik, erraza da txirrina **Vibración** edo **Silencioso** moduetara aldatzea.


Horretarako, pantaila nagusian behin eta berriz sakatu beheerantz bolumen-tekla.

Halaber, **Silencioso** modura edo alderantziz ere alda dezakezu; horretarako, pantaila nagusian luze sakatu **#** tekla.


Nabigazio-tekla


Sakatu nabigazio-tekla  gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz, pantailan batetik bestera mugitzeko eta elementuak nabarmentzeko.

Elementu bat nabarmentzean, sakatu erdiko tekla  hautatzeko.



Funtzio ugariko tekla

Funtzio ugariko teklak gauzak beste era batera egiteko aukera ematen ditu. Adibidez, menuko elementu batera joaten zarenean, funtzio ugariko tekla saka dezakezu hautatzeko  erdiko tekla sakatu beharrenean). Pantaila nagusian funtzio ugariko teklaren egintzak aldatzeko, ikus 99. orrialdea.



Ahots-komandoak

Ahots-komandoak erabil ditzakezu telefonoari zer egin nahi duzun adierazteko. Ahots-komandoen tekla ezagutzeko, kontsultatu 2. orrialdea.

Oharra: telefonoaren hizkuntzak ahots-komandoak onartzen dituenean baino ez dago erabilgarri aukera hau. Hala ez badago, ahots-izenak erabiltzen dira.


- 1 Sakatu eta askatu ahots-komandoaren tekla ; telefonoaren eskuineko aldean dago.

Telefonoak hauxe esango du: "Diga un comando".

- 2 Esan zerrendako ahots-komando bat (ordezkatu 555-1212 edozein telefonozenbakirekin eta Juan Pérez aurkibideko izen batekin):


Ahots-komandoak
"Llamar 555-1212"
"Llamar Juan Pérez"
"Enviar correo electrónico Juan Pérez"
"Enviar nota de voz 555-1212"
"Enviar nota de voz Juan Pérez"
"Enviar mensaje 555-1212"
"Enviar mensaje Juan Pérez"
"Buscar Juan Pérez"
"Ir al buzón de voz"
"Ir a la cámara"
"Ir a llamada"
"Ir a llamadas recibidas"
"Comprobar estado"
Bateria-maila eta estaldura zenbatekoak diren eta desplazamendu-moduan dagoen edo ez adieraziko dizu telefonoak.
"Comprobar batería"
"Comprobar cobertura"
"Comprobar red"
"Comprobar mi número de teléfono"
"Desactivar indicaciones"
Soinua desaktibatuko du telefonoak ahots-komandoen argibideetarako (adibidez, "Diga un comando"). Argibideak berriz aktibatzeko, esan "Activar indicaciones" . Hau esanez berretsiko du ekintza telefonoak: "Indicaciones de voz activadas".

Iradokizuna:

- Telefono-zenbaki batera deitu nahi duzunean, sarrera baten izena esan dezakezu zenbakiarekin batera. Adibidez, esan “Llamar Juan Pérez móvil” Juan Pérezen telefono mugikorraren zenbakira deitzeko.
- Esan zenbakiak abiadura eta bolumen normalean, digituak banan-banan argi ahoskatuz. Ez egin etenik digituen artean.
- Ahots-komandoei buruzko laguntza eskuratzeko, sakatu tecla de voz , eta, ondoren, sakatu **Ayuda**.

Ahots-komandoak konfiguratzeara

Ahots-komandoen konfigurazioa alda dezakezu.

- 1 Sakatu eta askatu ahots-komandoaren tekla ; telefonoaren eskuineko aldean dago.
- 2 Sakatu **Configurar** tekla.
- 3 Hautatu konfigurazio hauetako bat:

Ahots-komandoak konfiguratzeara	
Lista de resultados	Aukeren zerrendak aktibatzen edo desaktibatzen ditu. Telefonoak aukera-zerrendak erabiltzen ditu ahots-komandoak berresteko. Horretarako, hau galdetzen du: “Ha dicho...” eta aukera-zerrenda bat.
Sensibilidad	Honi esker, telefonoak probabilitate handiagoa edo txikiagoa du ahots-komando bat baztertzeko.

Ahots-komandoak konfiguratzeko	
Llamar número	Digituak ahoskatzeko duzun modua ezagutzeko entrenatzen du telefonoa.
Sonido	Soinua doitzen du ahots-komandoetarako
Acerca de	Komandoen softwareari buruzko informazioa bistaritzen du.

Esku libreko bozgorailua

Telefonoaren esku libreko bozgorailua erabil dezakezu telefonoa belarriaren ondoan eduki gabe deitzeko.



Hitz egiten ari zarela, sakatu **Altavoz** tekla esku libreko bozgorailua aktibatze edo desaktibatze. Pantailan **Altavoz Conectado** mezua bistaratuko da desaktibatuta edo deia amaitu arte.

Oharra:


- Gidatzen ari zarela, telefono mugikorra erabiltzeak arreta galtzea ekar dezake. Amaitu deia, gidatzen kontzentratzeko arazoak eragiten badizkizu. Gainera, haririk gabeko mugikorrek eta horien osagarriak erabiltzea debekatuta edo mugatuta dago toki batzuetan. Kontuan izan beti produktu hauek arautzen dituzten legeak eta erabilera-arauak.
- Esku libreko bozgorailuak ez du funtzionatzen telefonoa autoko kit batera edo esku libreko entzungailuetara konektatuta dagoenean.

Kodeak eta pasahitzak

Telefonoaren lau digituko **desblokeatze-kodea 1234** da, hasiera batean, eta 6 **digituko segurtasun-kodea**, berriz, **000000**. Operadoreak kode horiek aldatu ez baditu, zuk aldatu:

Bilatzeke:  >  **Configuración > Seguridad > Contraseñas Nuevas**



SIM txartelaren PIN kodea eta deiak murrizteko pasahitza ere alda ditzakezu.

Desblokeatze-kodea ahazten bazaizu: Código Desbloqueo adierazlean, sartu **1234** edo zure telefono-zenbakiko azken lau digituak. Horrek balio ez badu, sakatu  erdiko tekla eta sartu sei digituko segurtasun-kodea.

Beste kode batzuk ahaztu bazaizkizu: segurtasun-kodea, SIM txartelaren PINa, PIN2 kodea edo deiak blokeatzeko pasahitza ahaztu baduzu, jarri harremanetan zure operadorearekin.

Telefonoa blokeatzea eta desblokeatzea

Telefonoa blokea dezakezu, beste batzuk erabil ez dezaten. Telefonoa blokeatzeko edo desblokeatzeko, lau digituko desblokeatze-kodea behar duzu.

Telefonoa **eskuz blokeatzeko:** sakatu  >  **Configuración > Seguridad > Bloqueo Teléfono > Bloquear Ahora.**

Telefonoa itzaltzen duzun bakoitzean **automatikoki blokeatzeko**: sakatu  > 
Configuración > Seguridad > Bloqueo Teléfono > Bloqueo Automático > Activado.

Oharra: telefonoa blokeatuta badago ere egin ditzakezu larrialdiko deiak (ikus 79. orrialdea). Telefonoa blokeatuta egonda ere, deiak edo mezuak jasotzean jo edo bibratu egingo du, baina desblokeatu egin behar duzu erantzun nahi baduzu.

Pertsonalizatzea

Txirrin-motak

Txirrin-mota bakoitzak tonu- edo bibrazio-multzo bat erabiltzen du sarrerako deietarako eta bestelako gertaerentarako. **Silencioso** profilarekin, telefonoa isilarazten da, beste txirrin-mota bat definitu arte. Profilaren adierazlea pantaila nagusiaren goiko aldean bistaratuko da:



Handia



Txikia



Bibrazioa



Bibrazioa eta txirrina



Bibratu ondoren txirrina



Isilik

Profila hautatzeko:

Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Timbres** > **Tipo** > *Estiloaren izena*


Zuzeneko sarbidea: Txirrina bizkor alda dezakezu **Vibración** edo **Silencioso** aukeretara, pantaila nagusian, bolumen-tekla behin eta berriz behera sakatuta (ikus grafikoa, 64. orrialdean).

Profilaren konfigurazioa aldatzea

Sarrerako deien eta bestelako gertaeren tonuak alda ditzakezu. Aldaketak ez dira gordetzen uneko profilean.




Oharra: ezin da definitu tonu bat **Silencioso** profilarentzat.



Bilatzeke:  >  **Configuración** > **Timbres** > *Estiloaren xehetasunak*

- 1 Joan **Llamadas** aukerara (edo **Línea 1** edo **Línea 2** bi linea dituzten telefonoen kasuan), eta, gero, sakatu **Cambiar** tekla, aldatzeko.
- 2 Zoaz nahi duzun tonura, eta, ondoren, sakatu  erdiko tekla.

Ordua eta data

Telefonoak automatikoki eguneratu ditzake ordu-eremua, ordua eta data. Erabili ordua eta data **egutegirako**.

Ordua, data eta ordu-eremua sarekoarekin sinkronizatzeko: Sakatu  >  **Configuración > Config. Inicial > Hora y Fecha > Actualización Automática > Hora y Zona Horaria**. Telefonoak ordu-eremua, data eta ordua automatikoki egunera ez ditzan, hautatu **Solo Hora**. 


Ordu-eremua, ordua eta data eskuz definitzeko, desaktibatu **Actualización Automática** aukera, eta, ondoren: Sakatu  >  **Configuración > Config. Inicial > Hora y Fecha > Zona Horaria, Hora** edo **Fecha**. Ordu-eremuen zerrendako hiri batera zuzenean joateko, idatzi teklekin izenaren lehen letra.

Hasierako pantailarako erloju analogikoa edo digitala hautatzeko, sakatu  >  **Configuración > Personalización > Pantalla Principal > Reloj**.

Pantailaren hondoa

Konfigura ezazu argazki, irudi edo animazio bat pantaila nagusiaren hondo gisa.


Bilatzekeo:  >  **Configuración > Personalización > Fondo Pantalla**

Aukerak	
Imagen	Sakatu  gora edo behera, atzeko irudia hautatzeko, edo Ninguno atzean irudirik ez jartzeko.
Diseño	Hautatu Centrar irudia pantailan erdiratzeko, Mosaico irudia pantailan behin eta berriro errepikatzeko edo Ajustar a Pantalla irudiak pantaila guztia har dezan.

Pantaila-babesa

Aukerak Iradokizuna: funtzio honek pantaila babesten laguntzen du, ez bateria. Bateriaren iraupena areagotzeko, desaktibatu

Bilatzekeo:  >  **Configuración > Personalización > Animación**

Aukerak	
Imagen	Sakatu  gora edo behera, pantaila-babes gisa jarri nahi duzun irudia hautatzeko, edo Ninguno irudirik ez jartzeko.
Diseño	Hautatu zenbat denbora igaro behar den telefonoa ezertarako erabili gabe pantaila-babesa bistara dadin.

Oharra: pantaila-babesa ez da bistaritzen tapa itxita dagoenean eta teklatura blokeatzeko tenporizadorea aktibatuta dagoenean (teklatura blokeatzeko tenporizadoreari buruzko informazio gehiago izateko, ikus 44. orrialdea).

Iradokizuna: funtzio honek pantaila babesten laguntzen du, ez bateria. Bateriaren iraupena areagotzeko, desaktibatu pantaila-babesa.

Pantailaren itxura

Pantailaren itxura definitzeko aukera ematen duen **telefono-formatu** bat hautatzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Personalización** > **Interfaz**.

Pantailaren distira konfiguratzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Personalización** > **Brillo**.

Bateriaren iraupena luzatzeko, teklatuaren **argia** itzali egin daiteke telefonoa erabiltzen ez denean. Teklatua berriro pizten da tapa irekitzen edo ixten denean, edo edozein tekla sakatzen denean. Argia itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen definitzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Config. Inicial** > **Iluminación**.

Oharra: Java™ aplikazioen argia pizteko edo itzaltzeko, sakatu  >  **Configuración** > **Configurar Java** > **Iluminación**.

Bateriaren iraupena luzatzeko, pantaila itzali egin daiteke telefonoa erabiltzen ez denean. Pantaila berriro pizten da tapa irekitzen edo ixten denean, edo edozein tekla sakatzen denean. Pantaila itzali baino lehen telefonoak zenbat denbora itxarongo duen definitzeko:

Sakatu  >  **Configuración** > **Config. Inicial** > **Pantalla en Espera**.

Zenbait teklaekin erantzutea

Hainbat modu daude sarrerako deia erantzuteko. Erantzuteko aukera bat aktibatzeko edo desaktibatzeko:

Bilatzeko:  >  **Configuración** > **Llamada Entrante** > **Opciones Respuesta**

Aukerak	
Multitecla	Edozein tekla sakatuta erantzuteko
Respuesta Pospuesta	Erantzutea atzeratzeko aukera konfiguratzeko (ikus 76. orrialdea)

Deiak

Deitzeko edo deiak jasotzeko, ikus 29. orrialdea.


Dei-alerta desaktibatzea



Sakatu bolumen-teklak dei bati erantzun aurretik txirrina desaktibatzeko

Erantzun atzeratua

Dei bati erantzun nahi badiozu baina zauden tokitik atera behar baduzu horretarako, deiaren erantzuna atzeratu dezakezu.




Telefonoak jotzen duenean, sakatu **Posponer** edo  ahots-komandoa. Telefonoak ez du gehiago joko, eta mezu labur bat emango dio deitzaileari; adibidez, "Itxaron, mesedez; laster erantzungo dizute". Deia atxikita geratuko da **Hablar** sakatu arte.

Respuesta Pospuesta aktibatzeko edo **Respuesta Pospuesta** aukerarako mezua grabatzeko (10 segundoko iraupena izan dezake, gehienez), sakatu  >  > **Configuración > Llamada Entrante > Opciones Respuesta > Respuesta Pospuesta**


Azken deiak

Telefonoak sarrerako eta irteerako deien zerrendak gordetzen ditu, nahiz eta dei horietan konexiorik ez lortu. Deirik berrienak agertzen dira zerrendako lehen postuetan.



Dei zaharrenak ezabatu egiten dira berriak sartzen doazen heinean.

Zuzeneko sarbidea: Sakatu  pantaila nagusian, egindako deien zerrenda ikusteko.





Zuzeneko sarbidea: Zenbakizko zerrendan (adibidez, egindako deien zerrendan eta jasotako zerrendan), sakatu zenbaki-tekla bat zerrenda bat nabarmentzeko.

Bilatzeke:  >  **Ultimas Llamadas;** sakatu  edo  eta hautatu **Llamadas Recibidas, Llamadas Realizadas** edo **Llamadas Perdidas** zerrenda.



Joan dei batera. Deien ondoan agertzen den ✓ adierazleak esan nahi du deian konexioa lortu dela.



- Zenbaki horretara deitzeko, sakatu 
- Deia xehetasunak ikusteko (ordua eta data, adibidez), sakatu erdiko tekla 
- Sakatu **Opciones** azken deien aukerak hautatzeko:

Aukerak	
Borrar/ Borrar Todos	Zerrendako sarrera bat edo guztiak ezabatzen ditu.
Mostrar Número/ Ocultar Número	Hurrengo deian deia identifikazioa bistaritzen edo ezkututzen du.
Enviar Mensaje	Testu-mezu berri bat irekitzen du, Para eremuan azaltzen den zenbakiarekin.
Enviar Msj Voz	Ahots-grabazio bat hasten du zenbaki batera bidali ahal izateko.
Añadir Dígitos	Zenbakiaren atzean digitu bat gehitzen du.

Aukerak	
Adjuntar Número	Telefono-urkibideko edo azken deien zerrendako zenbaki bat sartzen du.
Hablar y Fax	Dei berean hitz egin eta faxa bidaltzeko (informazio gehiago izateko, ikus 103. orrialdea). 
Filtrar por	Egindako edo jasotako deiak aukeratzeko
Bloc de Números	Zenbakia testu-editore batean irekitzeko.
Tiempo de Llamadas	Deien kontagailuak ikusteko 
Tiempo de Datos	Datu-deien kontagailuak bistaritzen ditu 
Volumen de Datos	Datuen bolumen-neurgailuak bistaritzen ditu.. 

Berrito deitzea


- 1 Sakatu  pantaila nagusian, azken deien zerrenda ikusteko.
- 2 Zoaz deitu nahi duzun sarrerara eta, ondoren, sakatu .

Komunikatzen ari dela adierazten duen seinalea entzuten baduzu eta **Llamada Fallida** mezua ikusten baduzu, sakatu  edo **Reintentar** tekla, zenbakia berrito markatzeko. Deia behar bezala egiten denean, telefonoak behin jotzen du edo  bibratu egiten du, **Remarcación realizada** mezua bistaritzen da eta, ondoren, konexioa ezartzen da.

Deiak itzultzea

Telefonoak erantzunik gabeko dei guztien erregistroa du, eta **X Perdidas** mezua bistaritzen du (**X** galdutako dei-kopurua da).

1 X Perdidas mezua ikusten duzunean, sakatu **Ver** tekla jasotako deien zerrenda bistaratzeko

2 Zoaz nahi duzun deira, eta sakatu 

Deia identifikatzea

Dei-identifikazioak (deiaren identifikatzailea) sarrerako dei baten zenbakia bistaritzen du, bai kanpoko pantailan, bai barnekoan.



Aurkibidean badago, telefonoak dei-egilearen izena eta irudia bistaritzen ditu, edo **Llamada Entrante** deia identifikatzeko informaziorik ez dagoenean.


Telefonoa konfiguratu dezakezu aurkibideko sarrera jakinei beste txirrin bat esleitzeko (ikus 89. orrialdea).

Egiten duzun hurrengo deian **zure telefono-zenbakia** bistaratzeko edo ezkutatzeko, idatzi telefono-zenbakia eta sakatu **Opciones > Ocultar Número/Mostrar Número**.

Larrialdi-deiak

Zure operadoreak larrialdi-telefono bat edo gehiago programa ditzake (adibidez, 112); horietara edozein egoeratan dei dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean edo SIM txartela sartu ez denean ere.

Oharra: larrialdietako zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Baliteke telefonoan programatutako larrialdi-zenbakiak ez funtzionatzea leku guztietan eta batzuetan larrialdi-deiak egiteko aukerarik ez izatea interferentzia-, inguru- edo sare-arazoengatik.


- 1 Sakatu teklatuko teklak larrialdi-zenbakia idazteko.
- 2 Sakatu  larrialdietako zenbakira deitzeko

Ahots-postontzia

Ahots-postontzian jasotzen dituzun mezuak gordetzen ditu sareak. Zure mezuak entzuteko, deitu zure ahots-postontziko zenbakira.




Oharra: baliteke zure operadoreak funtzio honen erabilerari buruzko informazio osagarria gehitzea.

Ahots-postontzian mezu bat jasotzen duzunean,  ahots-postontziko mezuaren adierazlea eta **Mensaje Buzón Nuevo** bistaratzen ditu telefonoak.

Ahots-postontziko mezuak kontsultatzeko: Bilatzeko:  **Mensajes > Buzón de Voz**

Baliteke zure telefonoak eskatzea ahots-postontziko telefono-zenbakia gordeta izateko. Ez badakizu, jarri harremanetan zure operadorearekin.





Oharra: ezingo dituzu aukera hauek erabili: **Insertar Pausa** (etena), **Insertar Espera** (itxarotzea) edo **Introducir "n"** karaktere bat (zenbakizkoa) zenbaki honetan. Ahots-postontziko zenbaki bat karaktere horiekin gorde nahi baduzu, sortu horretarako sarrera bat aurkibidean. Horrela, sarrera hori erabil dezakezu ahots-postontzira deitzeko.






Ahots-postontziaren zenbakia aldatzeko edo ahots-postontziaren jakinarazpenak desaktibatzeko, sakatu  **Mensajes**, eta, ondoren, sakatu **Opciones > Configurar > Configurar Buzón Voz**.












Beste zenbait funtzio








Dei-funtzio aurreratuak











Deitzeko ahots-komandoak erabiltzeko, ikus 65. orrialdea.

Funtzioak	
Markaketa bizkorra	Aurkibideko sarrera baten edo markaketa finkoko zenbaki baten markaketa bizkor bat egiteko, sakatu eta luze sakatu –segundo batez– markaketa bizkorreko tekla. Aurkibideko sarrera bati markaketa bizkorreko tekla bat esleitzeko, ikus 88. orrialdea.
Definitu markaketa bizkorra duten zenbakien zerrenda	Agendako edo markaketa finkoko zerrendako sarreretara deiak egiteko, markaketa bizkorra ezar dezakezu: Sakatu  >  Configuración > Config. Inicial > Marcación Rápida > Memoria Teléfono edo Marcación Fija . 
Telefono-zenbakia eranstea	Telefono-aurkibideko zenbaki baten eremu-kodea edo aurrezenbakia markatu, eta sakatu Opciones > Adjuntar Número . 


Funtzioak	
Ohar-bloka	<p>Sartutako azken zenbakia <i>ohar-blokean</i> gordetzen da. Ohar-bloka erabil dezakezu hizketan ari zarela telefono-zenbaki bat "idazteko", gero erabili ahal izateko. Ohar-bloka ikusteko:</p> <p>Sakatu  >  Ultimas Llamadas, eta, gero, sakatu Opciones > Bloc de Números.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zenbaki horretara deitzeko, sakatu  • Aurkibidean sarrera bat sortzeko, Nº eremuan zenbaki bat jarrita, sakatu Guardar tekla. • Menú Marcación irekitzeko eta zenbaki bat eransteko edo karaktere berezi bat sartzeko, sakatu Opciones.
Nazioarteko deiak	<p>Telefono-zerbitzuak nazioarteko markaketa baldin badu, sakatu eta luze sakatu  tekla dagokion nazioarteko kodea sartzeko (+ ikurrak adierazten du). Gero, teklatuko teklak erabiliz markatu herrialdeko kodea eta telefono-zenbakia. </p>
Dei bat zain uztea	<p>Sakatu Opciones > Espera dei aktibo guztiak zain uzteko.</p>
Deia isilaraztea	<p>Sakatu Silenciador tekla (erabilgarri badago) edo Opciones > Silenciador dei aktibo guztiak isilarazteko.</p>

Funtzioak	
Deia zain	<p>Telefonoz hizketan ari zaren bitartean beste dei bat jasotzen baduzu, alerta bat entzungo duzu. </p> <p>Sakatu  dei berriari erantzuteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Deiak txandakatzeko, sakatu Cambiar tekla. • Bi deiak konektatzeko, sakatu Enlace tekla. • Atxikitako deia amaitzeko, sakatu Opciones > Finalizar en Espera. <p>Zain dagoen deiaren funtzioa aktibatzeke edo desaktibatzeke, sakatu  >  Configuración > Llamada Entrante > Llamada en Espera > Activado edo Desactivado</p>
Deia konferentzian	<p>Hitz egiten ari zarela: </p> <p>Markatu hurrengo zenbakia, sakatu , sakatu Enlace tekla.</p>
Deiak transferitzea	<p>Hitz egiten ari zarela: </p> <p>Sakatu Opciones > Transferir, markatu transferituko den zenbakia eta sakatu </p>
Deiak desbideratzea	<p>Deiak desbideratzeko aukera konfiguratzea edo ezeztatzea: </p> <p> >  Configuración > Desvío de Llamada</p>

Funtzioak	
Deiak murriztea	<p>Irteerako edo sarrerako deiak mugatzeko: </p> <p> >  Configuración > Seguridad > Bloqueo de Llamada</p>
Telefono-linea aldatzea	<p>Telefono-linea dualerako SIM txartela baduzu, lineaz alda dezakezu beste telefono-zenbakitik deiak egiteko eta jasotzeko. </p> <p> >  Configuración > Estado Teléfono > Línea Activa</p> <p>Aktibo dagoen telefono-linearen adierazleak adierazten du zein telefono-linea dagoen aktibo (ikus 59. orriko grafikoa).</p>
